

Semealabak

GETXOKO FAMILIA ESKOLAREN ALDIZKARIA



Egunerokoa



Nire eskolan aitite-amamen eguna antolatu dute. "Aitite eta amama ere jolasten ziren" deitu diote, eta eskolara gonbidatu dituzte guri zertara eta non jolasten zuten eta haurtzaroko jolasak eta jostailuak nolakoak ziren kontatzeko eta, batez ere, gurekin jolasteko.

Aitite-amama piloa etorri dira... Fatumataren aitona ere etorri da! Ni oso pozik nago azkenean amama Jone eta aitite Felix ere etorri ahal izan direlako.

Bi ordu eman ditugu haiekin eta, lehenik, gelan, txikitari jolasten zuten jolasei buruz hitz egin digute eta, gero, zertan jolastuko genuen eta nola egin behar genuen azaldu digute.

Gero patiora jaitsi gara eta, taldeka, txandaka, jolas desberdinetara jolastu dugu: txingoka, puxtarrietara, tabetara, gomara, kromoetara, iturrietara, kinkera,...

Amamak ziba bat ekarri du, etxean gordeta zeukana eta txikitari bere lagunekin jolasteko erabiltzen zuena. Harrigarria zen nola jirarazten zuen! Nik ez dut lortu behin ere ondo egitea. Saioa, Dani, Goie eta Jabi flipatzen ari ziren, jaja,.... Izugarri gustatu zait amama eta aitite etortzea eta asko gozatu dugu eta goiza ziztu bizian pasatu zaigu.

Nire aititek eta Junerenak azaldu digute zertan zetzan zapitxoaren jokoa, eta nola jolasten den erakutsi digute. Zenbat barre egin dugun Juneren aitonaekin! Oso xelebrea eta jatorra da. Egia esan, jolas batzuk oso dibertigarriak iruditu zaizkit, eta primeran pasatu dugu haiekin batera jolasten.

Beharbada hemendik aurrera jolasaldian jolas horietarikoren batera jolastuko dugu; eta, jakina, nik amamari zibara jolasten irakatsi behar didala esango diot.

Jolastea haurren eskubidea da, NBEk 1959tik onartua. Haurrek nola jolasten duten begiratzea ume horien garapen integrala nolako den ikustea da. Pediatria eta Psikologiaren arloko ikerketek jolasak haurtzaroen duen garrantzia bermatzen dute.

Iturrietara eta itsumandoka jolasten aitite eta amamarekin

Jolastea, jolasak eta jostailuak

Jolastea zerbait poztasunez egitea da, entrenitzeko, dibertitzeko edo gaitasun jakin batzuk garatzeko; beraz, **jolasa** entrenimenduz jolastearen ekintza eta ondorioa da.

Jostailuak haurrek jolasteko eta gaitasun jakin batzuk garatzeko edo entrenitzeko balio duten objektuak besterik ez dira.

Haurrak jolasten duen bitartean, errealitatea aztertzen du. Errealitate horretan eragiteko estrategia desberdinak probatzen ditu. Jolasean planteatzen zaizkion dilema guztientzako estrategiak probatzen ditu. Hainbat pentsamolde eta estilo garatzen

ditu. Jolastea bat-batekotasunerako eta benetako-tasunerako espazioa da haurrentzat, irudimen sortzailerako eta berezko arauak dituen fantasiarako espazioa. Jolasak kuxkuxean ibiltzen uzten dio umeari.

Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen jolasa oinarrizko tresna denik haurren ikaskuntza-prozesuan. Jolasak trebetasun mentalak, sozialak eta fisikoak garatzen laguntzen du; ingurune naturala da sentimenduak, beldurrak, maitasunak eta fantasiak modu espontaneo eta atseginean adierazteko. Halaber, eskolako lanerako eta bizitzako ondorengo etapetan beharrezko gaitasunak eskuratzeko oinarriak ezartzen ditu.





Hiriak eta herriak ez daude haurrentzat pentsatuta



kletarekin jolasteko edo irteteko guneak dituztenak. Baita, pixka bat, aita eta amaren gehiegizko babesagatik da, ez baitiegu guri etxean ematen ziguten askatasuna ematen. Beste alde batetik, agenda jarduerekin betetzen diegulako eta ia ez dagoelako denbora librerik gertatzen da; baina baita teknologiak jolas-denboraren zati handi bat hartzen duela ere eta duela hogeita hamar urte ez zegoen horrelakorik, eta eragotzi egiten dielako kalera, plazara edo parkera irten nahi izatea beste haur batzuekin jolastera; eta, hein handi batean, hiriak eta herriak ez daudelako haurrentzat pentsatuta.

Orain arte, eta bereziki azken hamarkadetan, hiria "batez besteko herritarra" parametrotzat hartuta pentsatu, proiektatu eta ebaluatu da eta, oro har, herritar horren profilaren ezaugarriak heldua, gizonetzkoa eta langilearenak izaten dira. Horrela, hiriak baztertu egiten ditu helduak, langileak eta gizonak ez diren herritarrak.



Baina helburua da haurrak berriz ere bakarrik aterata ahal izatea, telebistaren aurrean arratsalde osoak egitera kondentatuta ez egotea, leku batetik bestera korrika egin beharrik ez izatea, berriz ere lagun bat bilatu ahal izatea eta, elkarrekin jolastuz, gauzak deskubritzea. Zer esan nahi du honek hiriarentzat? Oso argi dago, hiriak aldatu egin behar duela, erabat, baina pixkanaka. Haurtzaroa ingurumen-adierazle sentikortzat hartzen da: hiri batean bakarrik jolasten eta paseatzen duten haurrak ikusten badira, hiria osasuntsu dagoela esan nahi du; hala ez bada, hiria gaixorik dagoela esan nahi du. Haurrak kalean dauden hiria segurua da, ez bakarrik haientzat, baita herritar guztientzat ere. Ume horien presentziak beste haur batzuk jaistera animatzen ditu, eta automobilek eta kanpoko beste

Kalera jolastera irtetea bezain osasuntsua den zerbait galdu egin da

Jolasaren garrantzia haurren garapenean

Jolasa **jarduera fisikoaren** motorra da, eta lehen mailako **sozializazio**-bidea. **Bizikidetzaren** baliocan hasteko espazio bat da; izan ere, jolasaren bidez ezartzen dira lehenengo interakzioak helduekin, lehenik, eta gero maila berekoekin. Pixka bat geroago, jolasaren bidez, haurrak bere emozioak, sentimenduak eta sormena adierazi eta barneratu ditzake.

Jolasaren bidez, barne-hizkuntza bat garatzen hasten dira beren jokabidea zuzentzeko eta beren burua planifikatzeko, eta kanpo-hizkuntza bat ekimenak hartzeko, eztabaidatzeko, negoziatzeko eta akordioak lortzeko. Jostailuen bidez errealitatea irudikatzen dute batzuetan, eta abstrakzio-prozesuak beste batzuetan.

Horregatik, jolas sinbolikoa heldutasunaren garapena ebaluatzeko tresna gisa erabiltzen da, eta zoriontasun- eta aisialdi-uneak bideratzen ditu eta horrek eragin zuzena du umeen autoestimuan eta ongizatean.

Haurrek jolasa dibertitzeko metodo gisa erabiltzen dute, baina nabarmendu behar da jolasa heziketa-baliabide edo bitarteko bihur daitekeela, baldin eta sormena sustatzen badu eta garapen globala ahalbidetzen badu. Beraz, bizitzako gainerako uneei forma emango dieten oinarriak eraikitzen dituen jarduera da eta horregatik da hain garrantzitsua jolastea eta modu osasungarrian jolastea.

Kalean jolastu?

1983an, jolasari buruzko argitalpen pedagogiko batek gertaera honekin kontuz ibiltzeko esaten zion: (...) *Haurrek gero eta gutxiago jolasten dute. Orduak eta orduak egiten dituzte telebistaren aurrean ezerez egiten. Kalean, auzo pribilegiatu batzuetan izan ezik, ezin dute jolastu: autoek inbaditzen dituzte. Plazak eta parkeak gutxi dira, txikiak eta jolasetarako egokiak ez direnak...*

Hain aspaldi ez dela, gurasook kalean jolasean ibiltzen ginen arratsaldero auzoko taldearekin. Horrek esan nahi zuen etxera itzultzen ginenean bainuontzian sartu behar genuela, zikinkeria guztia kentzeko eskuetatik, belaunetatik, aurpegitik, iletik eta abarretik. Hala ere, "kalera noa jolastera" esaldia ez da ia existitzen gure seme-alaben hiztegian, eta gizarte moduan ohitura hori berreskuratu beharko genuke eta haien bizitzaren parte izatea lortu. Haurtzaroan kalera jolastera irtetea bezain osasuntsua den zerbait galdu egin da.

Ohitura hau iraungi izanaren arrazoia nahiko banatua dago. Neurri batean, auzoetako segurtasun faltaren ondorio da; izan ere, dagoeneko ez dira ia zirkulaziorik gabeko kaleak, arriskurik gabe bizi-



arrisku batzuek dakartzaten arriskuak urruntzen ditu. Horrek esan nahi du aukera eman behar zaie la jolasteko, bat-bateko soziaziazioa esperimintatzeko, esperientzia autonomoak bizitzeko.

Errealitatea, ordea, bestelakoa da eta hurrek denbora luze ematen dute etxean gaur egun, baina ahal dugun guztia egin beharko genuke gure seme-alabek aire zabalean jolas dezaten, kalean jolasteak onura handiak baititu:

- Ikastera eta dibertitzera bultzatzen ditu; izan ere, kalera irtetea zentzumenak betetzen dituen espazio ireki bat berreskuratzeko modu bat da, kontrolik gabe jolasteko eta esperientziak bizitzeko aukera ematen duena.
- Sozializazioa eta adin guztietako hurrekin harremanak izaten ikastea.
- Irudimena eta autonomia sustatzea, autokontzientzia eta segurtasuna irabaziz.
- Ariketa fisikoa egitea jazarpen-jokoekin, ezkutakarekin, sokasaltoarekin, baloiarekin, bizikletarekin, patinetarekin... eta, horrela, obesitatea eta sedentarisinoa saihestea.
- Energia deskargatu eta eguneko tentsioak askatu; horrela nekatu egiten dira eta lo ere hobeto egiten dute.



Joko tradizionalak belaunaldien arteko lotura gisa

Jolas tradizionalak belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak dira eta nolabaiteko jarraipena dute aldi historiko batean. Transmisio hori ahoz egin da, eta portaeraren eta balioen ikaskuntzaren alderdi kulturalak, eguneroko zereginak, arauak eta ohiturak dakartza.

"Lehenago" jolas horiek aukera garrantzitsua dira kontsumismoa elikatzen ez duen denbora libre okupatzeko eta, gainera, gizarteratzeko baliabide ona dira.

Oinarrizko mugimendu-trebetasunak garatzeaz gain, lankidetzaren, adiskidetasunaren, gaitzuzteko gogoaren, errespetuaren eta abarren inguruko

Aitite-amamak oso garrantzitsuak dira bere iloben garapen emozional eta psikologikoan

Aitite-amamek ekarpen handia egin dezakete, euren haurtzaroko jolasei, buruzko, balioak, esperientziak eta jakinduriak emanez

jarrerak sustatzen dituzte, eta jolas horien jolasguneak denon eskura daude, sormenez eta irudimenez edozein jolastoki, kale edo zelai erabil baitaiteke.

Aire zabalez gozatzeko jolas tradizionalak ideal ugari daude, inolako materialekin edo oso gutxiarekin, eta horrek mundu guztiarentzat merkeak eta eskuragarriak bihurtzen ditu, parte-hartzaileei naturarekiko harremanaz gozatzeko aukera emanez.

Testuinguru horretan, aitona-amonek ekarpen handia egin dezakete, euren haurtzaroko jolasei, abestiei eta/edo ohiturei buruzko ezagutzak, balioak, esperientziak eta jakinduriak emanez eta, horrela, belaunaldien arteko harremanak sustatuz.

Gaur egun, aitona-amonen rola gero eta garrantzitsuagoa da iloben heziketari dagokionez, lan-

Gainera, aitite eta amama etxeko txikiarekin jolasteko gogoz daude beti, eta iloben eta aititeren eta amamaren arteko jolasa ez da beste haur batzuekin edo gurekin ezartzen duten jolasa bezalakoa.

Aititek eta amamak telebistarik ez zegoen garaia buruz hitz egiten digute, entretenitzeko irratia entzuten zuten sasoiari buruz. Puxtarriak, txapak eta gomak aipatzen dizkigute. Iturriak, ziba eta tiragoma. Itsumandoka, ezkutaketa, sokasaltoan eta zelai errera jolastea zer den. Irudimena eta sormena erabiliz adarrekin jostailu bat nola egin azaltzen digute.

Eta, gainera, entzun egiten dute. Beren iloben jolasak entzuten dituzte. Eta hori oso ona da, bi alderdiek, ilobek eta aitona-amonek, beste garai batekin konektatzen dutelako: hurrek iraganarekin, aito-

-erantzukizun handiegia eta familia-egituraren aldaketak direla eta. Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeak seme-alabak aitona-amonekin uztera behartzen ditu gurasoak, eta gero eta familia gehiagok ematen diete zainzaile papera.

Hala ere, askotan, familiak ez dira konturatzen horren garrantziaz. Aitona-amonen lanak azken baliabide gisa iloben kargu geratzea gaitzuzten du. Aita eta ama ez daudenean zaintzen dituztenak ez ezik, garapen emozional eta psikologikoan ere oso garrantzitsuak dira.

Ezinbesteko orientatzaileak dira, eta transmititzeko ikaskuntza asko dute euren esperientzien bidez, eta jolasak dira dituzten eta transmiti diezaguketen aberastasun kultural ugarietako bat.

Oraingo haurrak "touch" aroan jaio ziren, non klik bakar batekin bilatzen duten dibertsioa lortzen duten; aldiz, aitona-amona horiek kalean jolastuz hazi ziren, jolasak asmatuz anai-arrebekin, lehengusuekin, lehengusuekin, bizilagunekin eta, batzuetan, bakarrik ere bai, ez aspertzeko; beraz, bizitza osoan jolastu diren jolasak irakats diezazkigukete, gaur egungoekin zerikusirik ez dutenak eta onura ugari dakartzatenak maila sozialean, kognitiboan eta emozionalean.

na-amonek orainarekin, eta jolasa belaunaldien arteko trukea edo truke-balioa da.





Baliabideak [Gomendioak]

[Ikus-entzunezkoak]

A cloudy lesson



<https://www.youtube.com/watch?v=Da1jeVEcpg0>

Film labur honek aitona hodei sortzaile baten eta bere iloba ikastunaren istorioa kontatzen du eta, bien harridurarako, elkarrengandik ikasteko asko dutela deskubritzen dute. Familia bateko belaunaldi desberdinak erakutsiz, hurrei ikasten nola lagundu eta, aldi berean, haiengandik nola ikasi irakasten digu: aitona ilobari hodeiak egiten irakasten saiatzen da eta ilobak bidea okertu arren bidaiaz gozaten jarrai daitekeela erakusten dio. Pertsonaia bakoitzak jokatzeko dituen paperak trukatu egiten dira eta orduan haurrak irakasten dio aitonari hodeiak egiten, modu askoz sortzaileagoan.

Film labur honek gogorazten digu asko ikas dezakegula haurrengandik, haien sormenetik eta berritze-gogotik, baita haien akatsetatik ere; izan ere, ideia onak eguneroko erronkei irtenbideak aurkitu nahi izatek sor daitezke, egiten ditugun akatsak ikasteko erabiltzeko gauza bagara. Akatsak funtsezkoak dira gure ikaskuntzan.

[Web orriak]

educapeques

www.educapeques.com



<https://www.educapeques.com/recursos-para-el-aula/juegos-para-ninos/juegos-tradicionales.html>

Jolas tradizional ezagunenak azaltzen dituen web-gunea. Gainera, doan deskargatu daitezkeen jolasen irudiak eta fitxak ere eskaintzen ditu, paperean gorde nahi izanez gero.

[Liburuxkak]

Jolasen gida didaktikoa



Urtxintxa Eskolak 2003ko neguan Euskal Jolasen Liburuxka argitaratu zuen. Argitalpen honen bidez, hizkuntzaren transmisioan eten den katebegia osatzea da gure helburua: hurrei euskaraz jolas egiteko tresnak ematea alegia.

Euskarazko jolasa erdi ezkutuan dagoen altxorra da. Horregatik, liburuxka honetan, jolas zaharrak eta jolas berriak lantzeaz gain, jolaserako espazioa eta denbora berreskuratzen lagundu eta jolasak sortzeko gaitasuna sustatu nahi dugu.

Liburuxkak bi zati ditu, lehenengo zatian jolasaren inguruko hausnarketak eta kontzeptuak azaltzen dira eta bigarren zatian euskaraz jolasteko 57 jolas proposatzen dira. Hauek dira, liburuxkaren edukiak.

Esker-emate

Adarra Kolektiboari eta bere lanari "En busca del juego perdido" (1980) eskerrak bihotz-bihotzetik honetaz idazten bultzatu gaituelako.

Getxoko Familia Eskola

Jardueren egutegia 2020 Urria-Abendua

GAIA	DATA	ORDUA	TOKIA
Emozioen kudeaketa gaurko testuinguruan (Lehen Hezkuntza)	Urriak 21, 22	15:30-17:45	Urgull
Emozioen kudeaketa gaurko testuinguruan (Bigarren Hezkuntza)	Urriak 28, 29	17:00-19:15	Urgull
Berdinen arteko jazarpena: prebentzioa eta hautematea (LH)	Azaroak 3, 4	15:00-17:15	Romo Kultur Etxea
Teknologia digitalen papela gaur egun (Bigarren Hezkuntza)	Azaroak 17, 18	16:00-18:15	Urgull
Nerabegaroko aisialdi eta alkohol kontsumo praktikak (DBH)	Azaroak 30 - Abenduak 1	17:15-19:30	Romo Kultur Etxea
Bideojokuen erabilera haurtzaroan (Lehen Hezkuntza)	Abenduak 10, 11	14:15-16:30	Romo Kultur Etxea


- Familientzako eskola saioak doakoak dira eta Getxoko familia guztiei zuzenduta daude. Ez da beharrezkoa seme-alabak saioak emango diren zentroetako ikasleak izatea.
- Aurretiaz izena eman beharko da online inprimaki baten bitartez, zuen AMPAK edo eskolak bidaliko dizuen mezu elektronikoko bitartez. Baita gurasoeskolakgetxo@gmail.com bitartez.
- Saioak gauzatzeko gutxienez 6 pertsonen izena eman beharko dute. Gutxieneko parte-hartzailek ez baldin badago, izena eman dutenei saioa bertan behera geratu dela jakinaraziko zaie.
- Ikastaroek hiru saio izango dituzte, taulan adierazitako egunetan.
- Lehenengo egunean ezin baldin baduzue joan, hurrengo saioetara joateko aukera izango duzue, baina izena eman beharko da horretarako.

info+
94 466 01 51

1 MASKARA DERRIGORREZKOA



2 SEGURTASUN DISTANTZIA MANTENDU - 2 m.



3 ESKUAK GARBITU



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Semealabak aldizkariaren ale guztiak Getxoko udal webgunean [www.getxo.eus] daude eskuragarri .pdf formatuan.